



AIARAKO UDALAK 2024ko APIRILAREN 18an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Prudencio Otegui Echevarría jn.

ZINEGOTZIAK

Karmele Población Martínez and.
Marian Mendiguren Mendibil and.
Iratxe Parro Uzquiano and.
Izaskun García Aresti and.
Irantzu Apodaca Sánchez and.
Gentza Alamillo Udaeta jn.
Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita lau apirilaren hemezortzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko otsailaren 22an egindako ohiko osoko bilkurako akta.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko aktari ez zaiola Osakidetzaren idazkia atxiki eranskin gisa, berak eskatu zuen bezala.

Idazkari andreak erantzun dio egingo duela.

Ez da gaiaren gaineko iruzkinik egin, beraz, otsailaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko martxoaren 21ean egindako ohiko osoko bilkurako akta.

Idazkari andreak adierazi du ezin izan duela akta amaitu; hortaz, erabaki da puntua onetsi gabe uztea, eta ohiko osoko bilkuran onesteko utziko dela.



3.- María Ángeles Mendiguren Mendibil andreak (EH Bildu) Aiarako Udaleko zinegotziaren kargua hartzea, Iñigo Fraile Almanchel jaunaren ordeztu.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Hauteskunde-batzorde Zentralak bidali duenez, María Ángeles Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) egiaztagiria jaso dutela; izan ere, Iñigo Fraile Almanchel jauna ordeztuko du, uko egin diolako zinegotzi karguari. Eta zinegotzi andreak udal-idazkaritzan Ondasun eta Bateriaezintasunen Adierazpena aurkeztu du.

Hortaz, egokia da hautatutako zinegotziak kargua hartzea, HAOLoren 108.8 artikuluari jarraikiz, eta apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuarekin bat. Horretarako, Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak honako galdera hau egin dio María Ángeles Mendiguren Mendibil andreaki:

“¿Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal, guardando y haciendo guardar la Constitución como norma fundamental?”, edo euskaraz, “Zure kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzu zinegotzi karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzula?”. Eta hautatutako zinegotziak hau erantzun du:

“Euskal Errepublika lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Udalbatzak ongi etorria egin dio María Ángeles Mendiguren Mendibil andreaki, zinegotzi berri gisa.

4.- Onestea, bidezkoa bada, EH-BILDU talde politikoak aurkeztutako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren inguruko mozioa.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz mozioaren edukia aurkeztu du.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).

AURKAKO BOTOAK: 5 EAJ-PNV

IKUSI DA.- EH-BILDU talde politikoak aurkeztutako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren inguruko mozioa.

IKUSI DA.- 2024ko apirilaren 9an eginiko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo osoz, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EH BILDUK etxez etxeko laguntza zerbitzuaren inguruan aurkeztutako mozioa. Honako hau dio, hitzez hitz:



ehbildu

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN INGURUKO MOZIOA

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek jakinarazi digutenaren arabera, Aldundiaren jarraibideak jaso dira, Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren intentsitateak aldatzen dituen 675/2023 Errege Dekretua aipatuz, orain arte autonomoak diren pertsonen eskaintako zerbitzua ere alda dadin, oso egoera zehatzetara eta salbuespenezko izapideekin mugatuz.

Nahiz eta Errege Dekretu horretan jasota ez egon, orain arte irizpide teknikoaren arabera astean gehienez 3 orduz artatu diren kasuetako askok laguntza- eta prebentzio-funtzio garrantzitsua betetzen dute argi eta garbi.

Gure Udalari eragiten dioten datuei dagokienez, gaur egun 5 pertsona ari dira arreta hori jasotzen. Hala ere, ez da onartuko horrelako baloraziorik duen laguntza berririk.

Gure ustez, gainera, ELZren eskumena 2018an eskuordetzeko testutik ondorioztatzen denak barne hartzen ditu (letra lodiz adierazita) orain eraginpean hartzen diren kasuak:

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren udal-erregelamendua (185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zorroari eta prestazioei buruzkoa). Eskumenak GOFeri eskuordetuta (2018. urtea):

Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako eta mendetasun-arriskuan

MOCIÓN SOBRE LA PRESTACION DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

Según nos informan los Servicios Sociales de Base, se han recibido instrucciones por parte de Diputación para que, haciendo referencia al Real Decreto 675/2023 por el que se modifican las intensidades del Servicio de Ayuda a Domicilio, se modifique también el servicio ofrecido hasta ahora a personas autónomas, limitándolo a situaciones muy concretas y con tramitación de excepcionalidad.

Si bien no está contemplado en dicho Real Decreto, muchos de los casos que hasta ahora se han venido atendiendo con una intensidad máxima de 3h semanales a criterio técnico, claramente cumplen una función de apoyo y prevención importante.

En lo que respecta a los datos que afectan a nuestro Ayuntamiento, en la actualidad hay 5 personas que están recibiendo esta atención. Sin embargo, no se admitirán nuevas asistencias con este tipo de valoración.

Entendemos, además, que lo que se deduce del texto de la delegación de la competencia del SAD en el año 2018 incluye (señalado en negrita), los casos que ahora se ven afectados:

Reglamento Municipal del servicio de Ayuda a Domicilio (Decreto 185/2015 de Cartera y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales). Realizada delegación de competencias al IFBS (año 2018):

Establece como derecho subjetivo el Servicio de Ayuda a Domicilio para



dauden pertsonentzako Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua ezartzen du eskubide subjektibotzat (DBBn 23-24 puntu). Gainera, honako hauek ezartzen ditu hartzailetzat: autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten pertsonak, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta/edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak; behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten familiak dituzten adingabeak; laguntza behar duten eta gainbegiratzea behar duten familia-taldeak eta/edo pertsonak; gaixotasun terminalen bat duten pertsonak, eta, balorazio tekniko baten arabera, zerbitzu honetatik arreta jaso dezaketen pertsona eta/edo egoera guztiak.

Gure ustez, aipatutako lege-dekretuak mendekotasuna aitortuta duten pertsonen ematen zaien arreta hobetzen badu ere, ez dugu ulertzen eta ez gatoz bat mendekotasuna izateko arriskua duten pertsonen zerbitzu hori emateari uztea, baldin eta hemendik aurrera hala eskatzen badute.

Horregatik, EH Bilduk Aiara MOZIO hau aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta onar dadin:

1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio indarririk gabe utz ditzala Etxeko Laguntza Zerbitzuaren prestazioa aldatzeko jarraibideak, orain arte autonomoei eskainitako zerbitzua emateari dagokionez.

2. Erabaki hori Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailera bidaliko da.

Aiara, 2024ko martxoaren 13a.

personas en situación de dependencia y a personas en situación de riesgo dependencia (puntuación en el BVD entre 23-24 puntos). Además establece como destinatarias personas con dificultades en la autonomía personal que requieran apoyo para su desempeño de las actividades básicas y/o instrumentales de la vida diaria, menores de edad cuyas familias no puedan proporcionarles el cuidado y atención que requieran, grupos familiares y/ personas con excesivas cargas, conflictos relacionales... con necesidad de apoyo y que requieran supervisión, personas afectadas por una enfermedad terminal y todas aquellas personas y/o situaciones susceptibles de recibir la atención desde este servicio en función de una valoración técnica.

Entendemos que, si bien la atención a personas con reconocimiento de dependencia se ve mejorada por el citado Decreto Ley, no entendemos ni compartimos que se deje de prestar este servicio a las personas con riesgo de dependencia que lo soliciten a partir de ahora.

Es por ello que EH Bildu Aiara presenta la siguiente MOCION para su debate y aprobación en pleno:

1. El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Araba a dejar sin efecto las instrucciones de modificación de la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio en lo referente a la prestación del servicio ofrecido hasta ahora a personas autónomas.

2. Este acuerdo se remitirá al departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Araba.

En Ayala, a 13 de marzo de 2024.”



5. EAJ-PNVk etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateari buruz EH-Bilduk aurkeztutako mozioa ordezkatzeko eginiko zuzenketa.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta aurkeztutako zuzenketa azaldu du. Honako hau dio, hitzez hitz:



Etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateari buruz EHBilduk aurkeztutako mozioa ordezkatzeko zuzenketa

Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako udaleko EAJ-PNVren bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, ORDEZKAPEN-ZUZENKETA hau aurkeztu du EH BILDUK etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateari buruz egindako mozioaren gainean.

ZUZENKETA:

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 10.3 artikulua xedatzen duenez, Gobernuak, errege-dekretu bidez, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak ezarritako irizpideak onartuko ditu, zerbitzuen babes-intentsitatea eta horien arteko bateragarritasuna eta bateraezintasuna zehazteko. Halaber, lege horren 20. artikulua ezartzen du prestazio ekonomikoen zenbatekoak, Lurralde Kontseiluak erabaki ondoren, Gobernuak onartuko dituela errege-dekretu bidez.

Hori betetzeko onartu zen abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak

Enmienda de sustitución a la moción presentada por EHBildu en relación a la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio

D. Gentza Alamillo Udaeta, portavoz del Grupo Municipal de EAJ-PNV en el ayuntamiento de Ayala, al amparo del Reglamento vigente, presenta la siguiente ENMIENDA DE SUSTITUCIÓN a la Moción de EH BILDU en relación a la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

ENMIENDA:

El artículo 10.3 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, dispone que el Gobierno, mediante real decreto, aprobará los criterios establecidos por el Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia para determinar la intensidad de protección de los servicios y la compatibilidad e incompatibilidad entre los mismos. Asimismo, el artículo 20 de la citada ley establece que las cuantías de las prestaciones económicas, una vez acordadas por el Consejo Territorial, serán aprobadas por el Gobierno mediante real decreto.

En su cumplimiento fue aprobado el Real Decreto 1051/2013, de 27 de diciembre, por el que se regulan las prestaciones del Sistema para la autonomía y Atención a la Dependencia, establecidas en



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

arautzen dituen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoak.

Estatuko lege-arau bat, nahitaez bete beharrekoa.

Puntu honetara iritsita, Estatuko uztailaren 18ko 675/2023 Errege Dekretuak 1051/2013 Errege Dekretua aldatzen du. Proposatutako aldatetako autonomia pertsonalaren sustapenean sakontzen du, eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta hobetzen du; beraz, bat dator Nazio Batuen 2006ko abenduaren 13ko Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren edukiarekin, Espainiak 2007ko azaroan berretsia. Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak erabat eta berdintasun-baldintzetan izan ditzaten sustatzea, babestea eta ziurtatzea.

Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak, 2021eko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, mendekotasunaren arloko Talka Plana erabaki zuen. Neurri horien artean daude gutxienezko babes-mailaren zenbatekoak handitzea, telelaguntza eskubide subjektibotzat hartzea, prestazio ekonomikoak eta mendetasunari arreta emateko zerbitzuak hobetzeko egutegia, bai zenbatekoetan, bai intentsitateetan, eta familia-ingurune zainketen prestazio ekonomikoa aldatzea eta zaintzaile ez-profesionalentzako laguntza.

Arabako Foru Aldundiak errege-dekretu hori aplikatzeko egindako proposamenean, ELZren intentsitateak berrikusi ziren, errege-dekretuarekin bat etorritik, eta ELZren eskaerari eutsi zitzaion,

la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

Una norma legal estatal, de obligado cumplimiento.

Llegados a este punto, el Real Decreto 675/2023, de 18 de julio, estatal, modifica el Real Decreto 1051/2013. La modificación propuesta profundiza en la promoción de la autonomía personal y supone una mejora en la atención a las personas en situación de dependencia, por lo que se alinea con el contenido de la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, de 13 de diciembre de 2006, de Naciones Unidas, ratificada por España en noviembre de 2007. El propósito de la Convención es promover, proteger y asegurar el goce pleno y en condiciones de igualdad de todos los derechos humanos y libertades fundamentales por todas las personas con discapacidad.

El Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia acordó, en su sesión celebrada el día 15 de enero de 2021, el Plan de Choque en materia de dependencia. Entre sus medidas se recoge el incremento de las cuantías del nivel mínimo de protección, la consideración de la teleasistencia como derecho subjetivo, un calendario de mejoras en las prestaciones económicas y servicios de atención a la dependencia tanto en las cuantías como en las intensidades y la modificación de la prestación económica de cuidados en el entorno familiar y apoyo a cuidadores no profesionales.

En la propuesta de aplicación de dicho Real Decreto por parte de la Diputación Foral de Álava se revisaron las intensidades del SAD acorde al Real



irizpide teknikoaren arabera behar hori zuten salbuespen-egoeretan.

Arabako Foru Aldundiak ahalegin ekonomiko handia egiten du udaleskumeneko zerbitzu baten kudeaketan eta kostuan, eta, gainera, 675/2023 Errege Dekretua argitaratu zenetik, estaldura asko handitu da. Aurreko aurrekontu-ekitaldian zerbitzu horretarako gastua 7.401.314,39 €-koa izan zen, 2022an egikaritutakoa (6.700.000 €) baino gastu handiagoa, eta aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa (6.810.000 €). Horrek erakusten du Arabako Foru Aldundia oso kezkatuta dagoela 20.000 biztanletik beherako udaletan bizi diren pertsonen beharrei erantzuteko, zerbitzu horrekin eta etxean ahalik eta denbora luzeenean bizi-kalitate onarekin mantentzea ahalbidetzen duten beste zerbitzu batzuekin.

Azkenik, instrukzioak ez die eragiten lehendik aztertzen ari ziren kasuei.

Azaldutako guztiagatik, gure **ZUZENKETA PROPOSAMENA** honako puntu hauetan zehazten da:

1.- Aiarako Udalak eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari 675/2023 Errege Dekretuak Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioetan ezartzen dituen hobekuntzak bete ditzala, prestazio horiek Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritadaudenak.

2.- Udal-eskumena denez, EAJ/PNV taldeak gobernu-taldeari eskatzen dio azterlan bat egin dezala zerbitzua ematen ari den udalerraren mendekoak ez diren pertsonak ezagutzeko, eta, hala badagokio, beharrezko aurrekontualdaketak proposa ditzala zerbitzu hori eman ahal izateko Arabako Foru Aldundiak emandako zerbitzuaren estalduratik kanpo gera

Decreto, y se **mantuvo** la solicitud del SAD en situaciones de excepcionalidad que según criterio técnico tuvieran dicha necesidad.

La Diputación Foral de Álava efectúa un importante esfuerzo económico en la gestión y en el coste de un **servicio de competencia municipal**, para el que, además, desde la publicación del Real Decreto 675/2023, se incrementa ampliamente la cobertura. El gasto para este servicio en el pasado ejercicio presupuestario ascendió a 7.401.314,39€, gasto por encima de lo ejecutado en el año 2022 (6.700.000€), y por encima de lo presupuestado (6.810.000 €), lo cual denota una alta preocupación de la Diputación Foral de Álava en dar respuesta a las necesidades de las personas residentes en Ayuntamientos de menos de 20.000 habitantes, con este y otros servicios que permiten su mantenimiento en el domicilio, durante el mayor tiempo posible, con una buena calidad de vida .

Por último, la instrucción no afecta a casos que ya se vinieran atendiendo.

Por todo lo expuesto, nuestra **PROPUESTA de ENMIENDA** se concreta en los siguientes puntos:

1.- El Ayuntamiento Ayala insta a la Diputación Foral de Araba a cumplir con las mejoras que el Real Decreto 675/2023 establece en las prestaciones del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, establecidas en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

2.- Tratándose de una competencia municipal, el grupo EAJ/PNV insta al equipo de gobierno a realizar un estudio para conocer las personas no dependientes del municipio a las que se viene prestando el servicio, y a proponer, en su caso, las modificaciones presupuestarias necesarias para poder prestar dicho servicio en aquéllos



daitezkeen kasu edo egoeretan, teknikariek zehaztutako baldintzetan.

supuestos o situaciones que pudieren quedar fuera de la cobertura del servicio prestado por la Diputación Foral de Álava, en las condiciones que el personal técnico determine.

2024ko Apirilaren 10a.

Respaldiza, 20 de marzo de 2024”.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV), era berean Gobernu Taldeari galdetu dio ea udal-eskumenekoak diren zerbitzuak Udalak berak emango dituen.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz erantzun dio zerbitzu horiez Aldundia arduratzen dela, gainerako gizarte-zerbitzuekin bezala eta, noski, horretarako finantzaketa ematen duten arte, Udala ezingo du ardura hori hartu.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 5 EAJ-PNV

AURKAKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).

Hortaz, ez da aurkeztutako zuzenketa onetsi.

6.- Onestea, hala badagokio, 2024. urterako Aiarako Udalaren eta Asociación Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalak arlo guztietan euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena. Horren bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen da.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Informazio Batzordeak 2024ko apirilaren 10ean emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmenak Aiarako Udalak Asociación Hogeitalau Elkartearen alde egiten duen zuzeneko dirulaguntza arautzen duela, eta 2023ko udal-



aurrekontuan (2024rako luzatua) Udalari hitzarmena sinatzeak ekartzen dion gastua hartzeko kreditu nahiko eta egokia duen aurrekontu-aplikazio izenduna dagoela.

Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Onestea Aiarako Udalak eta Hogeitalau Elkarteak 2024rako sinatutako lankidetzaz-hitzarmena. Horren bidez, 6.000 euroko zuzeneko dirulaguntza ematen da; honela dio hitzez hitz:

AIARAKO UDALAREN ETA “HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEA”REN
ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA
2024. URTEA

Arespalditzan, 2024ko ***ren **(e)(a)n.

BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA alkate-udalburu jauna (NAN-zk.: 14925513 P), Naiara Lazpita Marcos Aiarako Udaleko idazkariaren laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Bestetik, ANA RIBAGUDA EGURROLA, Asociación Hogeitalau Euskara Elkarteak presidentea (NAN zk.: 16.273.857-T).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki-erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritik.

Bigarrena, “Hogeitalau Euskara Elkarteak”ren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G-01326107). Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen du haren nortasuna eta ordezkartza, eta aktaren fotokopia aurkeztu du. Bertan, Hogeitalau Euskara Elkarteak”ko presidentea aukeratu eta izendatzen da (hitzarmen honi 1. dokumentu gisa erantsi zaio).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzaz-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I.- Aiarako Udalak arlo guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko interes publikoa du, beraz, besteak beste, honako ekimen hauen bidez jardungo du:



- Igande arratsaldeak familian.
- 24 herri euskaraz.

II.- Aiarako Udalak, udalerrian euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko erabakia hartuta, hitzarmen honen bidez jardungo du – beste ekimen batzuen artean –, “Hogeitalau Euskara Elkarte”ri urteko jarduera-programa garatzeko eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko emango zaion dirulaguntza arautzen duena.

III.- “Hogeitalau Euskara Elkarte” aiararrentzat nahiz udalerriko elkarteentzat irekita dagoen elkarte da, eta bere xedea euskararen ezagutza eta erabilera soziala sustatzea. 2001ean sortu zenetik gaur egunera arte, Aiaran hizkuntza-normalizazioa lortzeko lan etengabea egiten aritu da.

IV.- “Hogeitalau Euskara Elkarte”k bere sorreratik erakutsi du interes handia duela Aiarako Udalarekin elkarlanean aritzeko euskararen sustapenarekin lotutako jarduerak antolatzeko, eta horren erakusle dira sortu zenetik arrakastaz funtzionatzen jarraitzen duten programak: Igande Arratsaldeak Familian, Gabonetako Lehiaketa, etab.

V.- Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetzahitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzahitzarmen hau gauzatzen dute. Honako hauek bete beharko dituzte:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Aiarako Udalaren aldetik hitzarmen honen xedea da euskara sustatzeko zenbait ekimen eta jarduera bultzatzea, “Asociación Hogeitalau Euskara Elkarte”ren laguntza eta koordinazioaren bidez, eta genero-ikuspegiarekin.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak 2024an egingo duen sustapen-jardueraren edukia honela zehazten da: “Hogeitalau Euskara Elkarte”ren urteko jarduerak eta 2024ko funtzionamendu-gastuek (jardueretan antolatzen diren askari eta luntx osasungarri guztiak barne) dakartzaten gastuei arreta eta dirulaguntza ematea, hitzarmen honen klausuletan ezarritakoaren arabera eta genero-ikuspegia kontuan hartuta. Horretarako, Udalak prestakuntza eta laguntza teknikoa emango ditu. COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean, osasun-agintariek horretarako ematen dituzten jarraibideak aintzat hartu eta aplikatuko dira.

HIRUGARRENA.- 2024. urterako, Aiarako Udalak gehienez 6.000,00 euroko dirulaguntza emango dio “Hogeitalau Euskara Elkarte”ri, eta euskara sustatzeko urteko programaren gastuak eta “Hogeitalau Euskara Elkarte”ren urteko funtzionamendu-gastuak ordaintzeko erabiliko da.

Ikusi da Aiarako Udalak ezin dituela eskuratu Arabako Foru Aldundiak euskara sustatzeko elkarteek egiten dituzten jarduerak finantzatzeko urtero deitzen eta ematen dituen dirulaguntzak, “Hogeitalau Euskara Elkarte”k eskatu behar du dagokion laguntza, bere urteko sustapen-programaren gastuen zati bat ordaintzeko. “Hogeitalau Euskara Elkarte”k aitortu beharko dio Aiarako Udalari Arabako Foru Aldundiak benetan emandako urteko dirulaguntza.



LAUGARRENA.- Dirulaguntzaren xede diren jardueren egikaritze-epeak diruz lagundutako urtearen denbora-mugak beteko ditu, hain zuzen ere, 2024. urtea.

“Hogeitalau Euskara Elkarte” antolatzen dituen aparteko jarduera guztiak, hitzarmen honetan ezarritako urteko gehieneko dirulaguntza ordaintzeko nahikoa ez izatea ekarriko dutenak, elkartearen beraren kontura izango dira soilik, eta ez ditu inola ere Aiarako Udalak ordainduko.

BOSGARRENA.- JUSTIFIKAZIOA. “Hogeitalau Euskara Elkarte”k **2025eko urtarrilaren 31** baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistro Orokorrean:

- a) Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira.
- b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarretingarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagirien kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek kontra egiten ez badute. Aurka eginez gero, I. ERANSKINA BETE eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
- c) Jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:
 - Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
 - Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko aitortpena).
 - Memorian hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da, eta partaidetzaren datuak sexuaren arabera banatuta emango dira.
 - Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-agiriak aurkeztuta.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak adostutako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du, hitzarmen hau onetsi eta sinatzean.

Gainerako zenbatekoa, hala badagokio, “Hogeitalau Euskara Elkarteak” aurreko puntuan aipatutako justifikazioa adierazitako epean aurkezten duenean ordainduko da.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du horri buruz egokitzen jotzen duen informazioa.

“Hogeitalau Euskara Elkarte”k publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesletza adieraziko du, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliko ditu.

ZAZPIGARRENA.- “Hogeitalau Euskara Elkarte”k Udalean aurkeztuko ditu eskabidea eta dagokion proiektua, urteko ekitaldiaren hasieran.



ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus; IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: www.aiarakoudala.eus; edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.

BEDERATZIGARRENA.- “Hogeitalau Euskara Elkartea”k hitzarmen honetan hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian aurreikusitako erantzukizunen eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean betetzeko.

ALKATE-UDALBURUA

HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEKO
PRESIDENTEA

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua.

I. ERANSKINA

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. AURKA EGITEA.

Udal honek datu eskuragarrien bitartekaritza-sistemen bitartez kontsulta eta egiaztapen egokiak egingo ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagirien gainean, sinatzen duenak aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.

Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.



- Aurka egiten diot Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriari buruzko kontsulta egiteari.

Aurka egitearen justifikazioa

Aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak justifikatzea (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

Data: _____

Elkartea: _____

Ordez kariaren izena: _____

Stua.: - _____

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EBko Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

BIGARRENA.- Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Asociación Hogeitalau Elkarteari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sina dezan.

7.- Onestea, hala badagokio, 2024. urterako Aiarako Udalaren eta Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalak babestu egin nahi duela Amukatu Elkarteak gauzatzen duen jarduera soziala; elkartearen xedea, hain zuzen ere, Aiara udalerriko katuen koloniak kontrolatzea eta horien egoera hobetzea da.

IKUSI DA.- Aipatu elkarteak harreman zuzena du Laudioko eta Urduñako albaitaritza-zentroarekin katuen koloniak kudeatzeko proiektuan, batez ere esterilizazio-lanei eta higiene zein saneamenduari loturiko jardueri dagokienez.



IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena, 2024 ekitaldirako, Aiara udalerrian bizi diren katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak kontrolatzeko eta hobetzeko lanak sustatzeko.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Informazio Batzordeak 2024ko apirilaren 10ean emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen honek 2023ko udal-aurrekontuan (2024rako luzatua) adierazten dituen gastuak bere gain hartzeko kreditu nahikoa eta egokia dagoela.

Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2024 ekitaldirako, Aiara udalerrian bizi diren katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak kontrolatzeko eta hobetzeko lanak sustatzeko. Hitzarmenak honako hau dio, hitzez hitz:

**“AIARAKO UDALAREN ETA AMUKATU ELKARTEAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA, 2021. URTEA”**

Arespalditzan, 2023ko martxoaren 29an.

BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA alkate-udalburu jauna (NAN-zk.: 14925513 P), Naiara Lazpita Marcos Aiarako Udaleko idazkariaren laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Beste aldetik, andrea, adinez nagusikoa (NAN zk.: 72.717.926-E) AMUKATU ELKARTEAREN presidentea (Kaleko katuak jaso, antzutu eta askatzea).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkaritzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritik.

Bigarrena, AMUKATU ELKARTEAREN (kaleko katuak jaso, antzutu eta askatzea) izenean (IFK: G01532589). Horren identifikazioa eta ordezkaritza atxikitako egiaztagiraren bidez egiaztatuta da.



Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzahitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

AMUKATU ELKARTEA (kaleko katuak jaso, antzutu eta askatzea) irabazi asmorik gabeko elkarte delá, Aiarako haraneko katu-kolonien egoera kontrolatu eta hobetzeko helburua duena. Horretarako, legearen aplikazio esparrua betez, honako jarduera hauek garatzen ditu:

- Katuak jaso, antzutu eta askatzea.
- Kolonien osasun eta higie-ne-saneamendua.
- Koloniak bizi diren eremuak egokitzea.
- Kolonien ongizaterako oinarrizkoak diren beharrak asetzea.

II.- Aiarako Udalak, Amukatu Elkartek eskualde honetan egiten duen lan soziala kontuan hartuta, erabaki du jarduera hori babestea, besteak beste, hitzarmen honen bidez. Hitzarmen horrek arautzen du katuen hiriko koloniak kontrolatu eta esterilizatzeko urteko plana garatzeko emango zaion urteko dirulaguntza. Honako jarduketa hauek egin beharko dira plana betetzeko:

- **URTEKO PLANAREN ANTOLAKUNTZA.**

Amukatu Elkartek, udalerriaren plano baten bidez, hasiera batean geografikoki kolonia guztiak identifikatuko ditu eta horien biztanleria eremu edo auzoka banatuko du. Era berean, kolonia bakoitzeko dauden katuen gutxi gorabeherako kalkulua egingo du, baita horien biziraupen egoeraren ingurukoa ere.

- **ANIMALIAK JASOTZEA, ESKU-HARTZEA ETA HORIEN ZAINKETA.**

Amukatu Elkartek, Audio eta Uruñako Albaitaritza zentroekin lankidetzan, katuak nola jaso antolatuko du, ondoren aipatutako kliniketara eramateko. Katuak han daudenean, kolegiatutako albaitariak horien osasunaren balorazio orokorra egingo dute, eta, beharrezkoa bada, horiek antzutuko dituzte eta belarrían mozketa bat egingo zaie ondoren identifikatu ahal izateko.

Animaliak jaso eta garraiatzeko lana Amukatuko boluntarioek egingo dute lankidetzako albaitaritza zentroekin lankidetzan. Horretarako, honako material hauek erabiliko dituzte: tranpa-kaiolak, eskularruak, arropa egokia, botikina, prismatikoak, amuzki-elikagaiak, mantatxoak eta garraiorako ibilgailua. Mantentze-lanak eta gastuen kudeaketa aipatutako albaitaritza zentroen ikuskapenarekin eta instalazio egokietan egingo da, eta ez da inoiz animalia bat bere osasuna ona dela ziurtatzeko behar duguna baino denbora gutxiago egongo. Ez dira animaliak inondik inora hilko, tratamendu egokiekin gaixotasunak gainditu baditzakete.



Gainerako animaliak garbitu, tratatu eta antzutuko ditugu, ebakuntza osteko prozesu erraza izateko eta ahalik eta azkarren sendatzeko.

Adoptatu ezin diren, baina tratatuak izan diren animalia guztiei belarrian marka bat egingo zaie operazioa egin bitartean, anestesia baliatuta. Animalia horiei guztiei identifikazio zenbakia, izena eta haien koloniaren kokapena adierazten duen fitxa bat irekiko zaie.

Ebakuntzaren ondoren ez badago zailtasunik, adoptatutako katuak salbuetsita, katuak ahalik eta azkarren jaso ziren toki berera itzuli beharko dira.

- **KOLONIAK EGOKITU ETA IKUSKATZEA.**

Beharrezkoa balitz, kolonia bizi den eremua egokitu egingo da; tresnak, elikagai-hondarrak eta beste edozein zabor kenduko da, animaliek zein pertsonak sortutakoa, kolonia mantendu ahal izateko. Garbiketa amaituko da koloniaren eremua produktu fitosanitarioekin tratatu beharko balitz, higie egoki bat mantendu ahal izateko.

Eremu bat ezarriko da (aurretiaz Udalarekin eta inplikaturako komunitateekin adostutakoa) eta bertan edontziak, askak eta babesleku egokiak (etxolak, olanak) jarriko dira atsedean hartu dezaten eta eguralditik beren burua babestu dezaten.

- **PLANAREN INGURUKO INFORMAZIOA ETA DIBULGAZIOA.**

Amukatu Elkartek informazio, sentsibilizazio eta dibulgazio-lana gauzatuko du hitzaldi, informazio-hilabete, eta abarren bidez. Horiek hainbat materialetan oinarrituko dira, bereziki esku-orrietan, informazio-ohartxoetan eta karteletan, herritarrei une oro egingo dugun lana jakinarazteko.

Animaliak dituzten pertsonen zuzendutako komunikazioa eta sentsibilizazioa bereziki landuko da, eta katuen elikadurarekiko eta beste animalien bat egotean izan beharreko jarrerarekiko jarraibideak emango dira, edozein gatazka konpondu ahal izateko. Hitzarmen honen esparruan sortutako material guztiek hitzarmen honetan jasotako lankidetzari egin beharko diote erreferentzia. Horrez gain, Amukatu Elkartek egindako material oro dibulgatu baino lehen Udaleko zerbitzu teknikoei aurkeztu beharko zaie.

III.- Aplikatu behar den legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetzahitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzahitzarmen hau gauzatzen dute. Honako hauek bete beharko dituzte:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Aiarako Udalak hitzarmen honekiko duen xedea da Amukatu Elkartek urtean zehar garatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzea, KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEA jarduerari dagokionez.



Horrek baztertu egiten ditu partikularren katuak eta jabeen antzutzeari dagokionez erantzukizun faltagatik sortzen diren kumaldiak.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak gauzatuko duen sustapen-ekimenaren edukia Amukatu Elkarteak 2024. urtean zehar egingo dituen deskribatutako jardueren gastuen dirulaguntzan zehazten da.

HIRUGARRENA.- Aurretiaz aipatutako jarduerak sustatzeko administrazio honek emango du dirulaguntza eta horren garapenerako beharrezko gastuak ordainduko ditu.

Hitzarmen honi dagokion dirulaguntza urtean gehienez ere MILA EUROKOA (1.000 €) izango da.

LAUGARRENA.- Urteko dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez ere 1.000 €) adierazitako zenbatekoari dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

- a) Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitorpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira.

- b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarreragingarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek kontra egiten ez badute. Aurka eginez gero, I. ERANSKINA BETE eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

- c) Jarduerari lotutako honako dokumentu hauek:
 - Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
 - Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena). Gainera, dauden katuen kolonien deskribapen-laburpen bat sartuko da. Bertan adieraziko da horren garapena, gutxi gorabehera dauden animaliak eta horien garapena, zenbat antzutze egin diren eta hartutako neurrien eraginkortasuna baloratzea. Memorian hizkeraren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da.
 - Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu-gastua), diru-sarrera eta gastuekin, Aiarako Udalak diruz laguntzen dituen jarduketan dagozkien fakturak eta ordainketa dokumentuak aurkeztuz.
 - Katuen antzutzeak eta higienizatzea egiteagatik albaitaritza zentroek emandako fakturak. Faktura horietan egindako lanak zehatz-mehatz jaso beharko dira. Eta hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerari lotutako fakturak.

Lehenengo hizpaketako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.



2025eko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren hizpaketan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da Udalak urtean zehar deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin; hala ere, elkarteak ezin izango du hitzarmen honetan deskribatutako jarduera batean ere gainfinantzaketarik izan.

BOSGARRENA.- Diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epea diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra.

SEIGARRENA.- Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus; IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeek, aseguru-etxeei, osasun-erakundeek eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: www.aiarakoudala.eus; edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Gainerako % 20a behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du horri buruz egokitutako jotzen duen informazioa.

ZORTZIGARRENA.- AMUKATU ELKARTEAK egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzak eta babesa jaso beharko da.

BEDERATZIGARRENA.- AMUKATU ELKARTEAK hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzak-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 6 folioetan, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean hitzarmena betetzeko.

ALKATE-UDALBURUA,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Stua.:- Prudencio Otegui Echevarría

Stua.:- Naiara Lazpita Marcos

AMUKATU ELKARTEAREN PRESIDENTEA,
Stua.:- Rubén Bermúdez Balza jn.

I. ERANSKINA

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. AURKA EGITEA.

Udal honek, eskura dituen datuen bitartekaritza-sistemen bidez, behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duten ziurtagiriei buruz, salbu eta behean sinatzen duenak horren aurka egiten badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.

Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.
- Aurka egiten diot Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriari buruzko kontsulta egiteari.

Aurka egitearen justifikazioa

Aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak justifikatzea (*3/2018 Lege Organikoaren* *18.* *artikulua*).

Data: _____

Elkartea: _____

Ordez kariaren izena: _____

Stua.:- _____

Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EBko Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.



HIRUGARRENA.- Erabaki hau AMUKATU ELKARTEARI jakinaraztea, dagokion hitzarmena sina dezan.

8.- Udaleko gizarte-zerbitzuak emateko aldi-baterako mantenurako erabakiaren luzapenaren osoko bilkurako erabaki-proposamena.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, alkateak edo udalburuak, behar bezala arrazoituta presazko arrazoiak direla medio, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik jakinarazi ez dituen gaiak sartu ahal izango dituela gai-zerrendan, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko inolako erabakirik hartu Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi ezean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da; aho batez onetsi du puntu hau bilkura honetako gai-zerrendan sartzea.

Puntu honi buruzko erabaki-proposamenaren berri eman da.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du Gobernu Taldeak ez duela proposamenik egin, Aldundiaren erabakiaren berri baino ez da eman. Hori dela eta, eskatu du argitzeko Gobernu Taldeak bat egingo duen proposamen horrekin, bozkatu baino lehenago.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz esan du derrigortuta daudela erabaki hori onesteko, Udalak ez duelako finantzaketarik bere baliabideekin egikaritzeko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta galdetu du, EH BILDU erabaki horretan beti abstenitu denez, ea kudeaketaren bat egin duen Aldundiarekin egoera hori aldatzeko. Eta ez bada ezer egin, ea zerbait egin behar den.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz erantzun du momentuz ezetz, etorkizunean ikusiko dutela.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen (aurrerantzean, GZL) 42. artikulua aurreikusten duen arabera, Udalak honako funtzio hauek betetzeko eskumena du:

(...)

3) 29. artikuluan zehazturik datozen oinarriko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da-eta. Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik.



IKUSI DA.- GLZren 2. artikulua, era berean, gizarte-zerbitzuei eskubide subjektiboa ematen die, 2016ko abenduaren 26an hobetuko dena.

AINTZAT HARTU DA.- Arauzko eskakizun horiek berehala aplikatuko direla; hortaz, honako hau jakinarazten da:

- a) GZLren 42. artikulua, Legean jasotako erreferentziazko beste araudiek bezala, udalaren eskumenak zerbitzua behar bezala ematekin bereizten dituela.
- b) GZLren helburu argi eta erabakigarria dela udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuak elkarrekin eman daitezkeela (GZLren 28.2. eta 29.4. artikulua).
- c) Helburu hori bereziki nabaria dela Arabako Lurralde Historikoan; izan ere, bertako udalari batek ere gaituzten du 20.000 biztanleen atalasea, Vitoria-Gasteiz ez ezik. Aiara udalerraren kasuan gauza bera gertatzen da: 3.000 biztanle baino gutxiago ditu.
- d) Partekatutako zerbitzu hori, era berean, GZLren 36.5. artikuluan aholkatzen da Gizarte Zerbitzuen Mapak foru- eta toki-administrazioek zehazten dituzten banaketa geografikoak hartuko dituela aintzakotzat. Bere garaian Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onetsi zen, eta gaur egun oraindik zehazteke dago udal-mugaketaz gaituzten lurralde batean eman beharreko gizarte-zerbitzuak emateko modua.
- e) Udal honek ezin dituela gizarte-zerbitzu horiek eman bere kabuz, eskala nahikoa ez izateagatik ezta Lurralde Historikoko Mapa ez egokitzeagatik.
- f) Oraindik ez dela gizarte-zerbitzu horiek modu elkartuan edo beste bide instituzional baten bidez kudeaketa partekatuen formula adostu.
- g) Gaur egun arte, Arabako Foru Aldundiak bere kabuz eta hitzarmenen bidez udaleko zerbitzuen zati handi bat ordaintzen egon da; ezarritako aurreikuspenen arabera, zerbitzu horiek udal-eskumenekoak dira.
- h) GZLk espresuki aitortzen duela administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren beharra, eta hori diseinatzen den gizarte-zerbitzuen sistema integratuari atxikia doa.
- i) Era berean, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31.2.a) artikulua aurreikusten du aldundien xedeetako bat dela “probintziako lurralde osoan udalerraren eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzea”.

AINTZAT HARTU DA.- Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 28ko 883/2022 Aginduen bidez onetsi zen Lurralde Historikoko udalei jakinaraztea abenduaren 26ko 904/2016 erabakia **2024ko abenduaren 31ra luzatzeko** proposamena. 904/2016 Erabakiaren bidez onesten zen gizarte-zerbitzuak aldi baterako mantentzea, Arabako Lurralde Historikoko Aldundiak eta udalek kudeatu dituzten baldintzetan, 20.000 biztanletik beherako udalen kasuan, garaian onetsitako baldintza beretan.

AINTZAT HARTU DA.- Beharrezkotzat jotzen dela, adierazitako xedea aintzat hartuz, udal-eskumenekoak diren zerbitzuak ematen jarraitzea eta helburuarekin lankidetzaren esparruan lan egiten jarraitzea. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorroaren Dekretuan eta Plan Estrategikoan xedatutakoa bete behar da, hori guztia egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat etorriko den ikuspegi tekniko eta juridikoa eta finantza-nahikotasuna kontuan hartuta.

GERTAERA.- Udalerriko herritarren eskubide subjektiboa bermatu behar dela, Gizarte Zerbitzuen Euskal Herriko Sistemaren prestazio eta zerbitzuetara sarbidea izatekoa; hortaz,



Aldundiak eta Udalak eman eta kudeatu dituen baldintzetan guztiz bermatuta geratu behar da eskubide hori.

Eta, datu arauemaitetik abiatuta, aipatutako Erabakiko bigarren puntuak ezartzen du horren eraginkortasuna, udalerriz udalerrri, udal-organo eskudunaren onspena izatearen eta gero hori egiaztagiri baten bidez Arabako Foru Aldundiari jakinaraztearen menpe dagoela.

Aiarako Udaleko Udalbatzak, kide guztien aho bateko adostasunarekin, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Adieraztea Aiarako Udala ados dagoela Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 883/2022 Erabakiarekin. Horren bidez onesten da gizarte-zerbitzuak aldi baterako mantentzea onesteko abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia **2024ko abenduaren 31rarte luzatzea**, Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko Udalek jarraitu dituzten baldintza beretan. 883/2022 Erabakiak honako hau dio, hitzez hitz:

**“ACUERDO 882/2023 – 26 de diciembre
882/2023 ERABAKIA – Abenduaren 26a**
Gizarte Politiken Saila
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
Departamento de Políticas Sociales
Dirección de Servicios Sociales

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren zazpigarren luzapena onartzea. Erabaki horren bidez, udaletako gizarte-zerbitzuen prestazioa behin-behinean mantenduko da, Aldundiak kudeatu izan dituen baldintzetan.

Aprobar la séptima prórroga del Acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava de 26 de diciembre para el mantenimiento provisional de la prestación de los servicios sociales municipales, en los términos que se han venido gestionando por la Diputación.

Eskumenen banaketa berriak eta, zehazkiago, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezarritako lehen mailako arretako eta bigarren mailako arretako zerbitzuen horniduraren arteko bereizketak, bai eta herritarrei gizarte-zerbitzuak emango zaizkiela bermatzeko borondate irmoak ere, foru-administrazioak eta toki-administrazioak modu partekatuan kudeatzen zituzten zerbitzuak berrantolatzeke lanean jarraitzen zuten bitartean, eragin zuten 2016ko abenduaren 26an Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak akordio bat onartzea gizarte-zerbitzuei behin-behinean eusteko, 20.000 biztanle baino gutxiago zituzten Arabako Foru Aldundiak eta udalerriek kudeatu dituzten baldintzetan. Akordio horrek

El nuevo reparto de competencias y, más concretamente, la distinción entre provisión de servicios de atención primaria y atención secundaria establecido por la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, así como la firme voluntad de garantizar la provisión de servicios sociales a la ciudadanía en tanto se seguía trabajando en la reordenación de los servicios que se venían gestionando de forma compartida entre la Administración Foral y local, motivaron que con fecha 26 de diciembre de 2016 el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava aprobara un acuerdo para el mantenimiento provisional de los servicios sociales, en los términos que se han venido gestionando por la Diputación y por los municipios del Territorio Histórico de



24 hilabeteko indarraldia zuen, hau da, 2018ko abenduaren 26ra arte.

Álava, con población inferior a 20.000 habitantes, el cual tenía una vigencia de 24 meses, esto es, hasta el 26 de diciembre de 2018.

Akordio horren helburua zen Arabako herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko duten eskubide subjektiboa erabat berrantolatu geratzea, harik eta Erakunde arteko Mahaia, gehienez ere 24 hilabeteko epean, gizarte-zerbitzu guztiak emateko behar diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatu arte, bakoitzari dagokion eskumen-esparruan.

Dicho acuerdo perseguía que, el derecho subjetivo de la ciudadanía alavesa al acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, quedara totalmente garantizado en tanto en cuanto, en un plazo máximo de 24 meses la Mesa Interinstitucional propusiera los recursos técnicos, económicos y jurídicos necesarios para la efectiva prestación de todos los servicios sociales en el marco competencial que a cada uno correspondía.

Une horretatik aurrera, Arabako Lurralde Historikoko zerbitzuak berrantolatzeko eta kudeatzeko formula lantzen hasi zen, eskumen-banaketa berriaren ondorioz, eta toki-erakundeekin lankidetzan aritu zen, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorroaren Dekretuan eta Plan Estrategikoan xedatutakoa betetzeko, betiere egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat datorren ikuspegi tekniko, juridiko eta finantza-nahikotik.

A partir de ese momento se empezó a trabajar en la reordenación y fórmula de gestión de los servicios del Territorio Histórico de Álava derivada de la nueva distribución competencial, y colaborando con las entidades locales con el objeto de cumplir con lo dispuesto en la Ley de Servicios Sociales, Decreto de Cartera y Plan Estratégico, todo ello, desde una perspectiva técnica, jurídica y de suficiencia financiera acorde con el Sistema Vasco de Servicios Sociales actual.

2018ko ekitaldian, Zorroari buruzko Dekretuaren 1.2 fitxaren arabera udal-eskumeneko zerbitzua den Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokion lana amaitu zen. Horretarako, 20.000 biztanletik beherako Arabako 50 udalerriek erabaki bat hartu zuten zerbitzu horri lotutako administrazio-prozedurak garatzeko eta dagokion prezio publikoa kobratzeko eskumenak eskuordetzeko, eta zerbitzu horren kudeaketa osoa Arabako Foru Aldundiaren esku uzteko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez. Era berean, Etxez etxeko Laguntza zerbitzua emateko ordenantza arautzailea eta prezio publikoen aplikazioa arautzeko ordenantza fiskala onartu zituzten

Durante el ejercicio 2018 se concluyó el trabajo correspondiente al Servicio de Ayuda a Domicilio, servicio de competencia municipal de acuerdo con la ficha 1.2 del Decreto de Cartera, para lo que los 50 municipios alaveses de menos de 20.000 habitantes adoptaron un acuerdo para delegar las competencias para el desarrollo de los procedimientos administrativos vinculados al referido servicio y cobro del correspondiente precio público, y encomendar la gestión integral de dicho servicio a la Diputación Foral de Álava, a través del Instituto Foral de Bienestar Social. Asimismo, aprobaron la ordenanza reguladora de la prestación del servicio de Ayuda a Domicilio y la ordenanza fiscal para regular la aplicación de sus precios públicos.



Alderdiek beren gain hartutako gainerako konpromisoak amaitzeke zeudenez, Arabako Lurralde Batzordeak, 2018ko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Arabako Foru Aldundiari eskatzea beste hemezortzi (18) hilabetez luza zezala, hau da, 2020ko ekainaren 26ra arte, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia. Gobernu Kontseiluaren abenduaren 21eko 765/2018 Erabakiaren bidez ere onartu zen luzapen hori.

Emandako luzapenean ezinezkoa izan zenez egiteke zegoen lana egitea, eta une horretan ezin izan zitzaionez aurre egin, COVID-19ak sortutako osasun-larrialdiko egoerak planteatutako egoera zaila zela eta, Arabako Foru Aldundiak bigarren luzapen bat proposatu zuen, eta hala onartu du Arabako Lurralde Batzordeak 2020ko apirilaren 16an egindako bileran; azkenean, maiatzaren 26ko 222/2020 Erabakiaren bidez onartu zen.

2020ko ekitaldian amaitu zen Eguneko Arretarako Landa Zentroei dagokien lana, Zorroari buruzko Dekretuaren 1.7.1 fitxaren arabera, nahiz eta 2021eko ekitaldi osoan zehar martxan jarri den. Hala, gainerako konpromisoak hartzeke zeudenez, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 720/2020 Erabakiaren bidez, hirugarren luzapen bat adostu zen 2021eko abenduaren 31ra arte.

Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 845/2021 Erabakiaren bidez, laugarren luzapen bat onartu zen 2022ko ekainaren 30era arte, etxebizitza komunitarioei buruzko lanak martxoan amaitzeko eta gainerakoa ekainaren 30erako amaitzeko konpromisoarekin.

2021eko eta 2022ko ekitaldietan, gainerako udal-zerbitzuetan lanean jarraitu da, eta honako hau zehaztu da: etxebizitza komunitarioetan beharrezko dokumentazio guztia egin da, eta erakundeen konpromiso ekonomikoak adostu gabe geratu dira. Gizarte-eta hezkuntza-arloan esku hartzeko zerbitzuan,

Estando pendiente de finalizar el resto de los compromisos asumidos por las partes, la Comisión Territorial de Álava, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2018, acordó solicitar a la Diputación Foral de Álava la prórroga en dieciocho (18) meses más, esto es, hasta el 26 de junio de 2020, del Acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre, dicha prórroga fue igualmente aprobada mediante el Acuerdo 765/2018 de 21 de diciembre del Consejo de Gobierno.

No habiendo sido posible durante la prórroga concedida llevar a cabo el trabajo pendiente y no siendo posible su abordaje en ese momento debido a las complicada situación planteada por el estado de emergencia sanitaria creado por el COVID-19, se propuso una segunda prórroga por la Diputación Foral de Álava y así lo ha aprobado por la Comisión Territorial de Álava en sesión celebrada el 16 de abril de 2020 que fue finalmente aprobada mediante Acuerdo 222/2020 de 26 de mayo.

Durante el ejercicio 2020 concluyó el trabajo correspondiente a los Centros Rurales de Atención Diurna de acuerdo con la ficha 1.7.1 del Decreto de Cartera, si bien su puesta en marcha se ha prolongado durante todo el ejercicio 2021. Así, estando pendientes el resto de los compromisos mediante acuerdo 720/2020, de 29 de diciembre, del Consejo de Gobierno se acordó una tercera prórroga hasta el 31 de diciembre de 2021.

Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno 845/2021, de 28 de diciembre, se aprobó una cuarta prórroga hasta el 30 de junio de 2022, con el compromiso de finalizar los trabajos relativos a las viviendas comunitarias en el mes de marzo y concluir el resto para el 30 de junio.

Durante los ejercicios 2021 y 2022 se ha continuado trabajando en el resto de los servicios municipales y se ha concretado lo siguiente: en viviendas comunitarias se ha elaborado toda la documentación necesaria quedando pendiente de acordar los compromisos económicos de las Instituciones



berriz, behin betiko onartzeko dagoen sarbide-araudia egin da. Bosgarren luzapena onartu zen Kontseiluaren ekainaren 28ko 396/2022 Erabakiaren bidez, eta Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 883/2022 Erabakiaren bidez, seigarren luzapena onartu zen 2023ko abenduaren 31ra arte. Hala ere, eta egiteke dauden lanekin amaitzea ezinezkoa izan denez, egokitzat jotzen da Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren zazpigarren luzapena izapidetzea, 2024ko abenduaren 31ra arte.

Ondorioz, Gizarte Politiketako diputatuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

AKORDIOA

Lehena. Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren zazpigarren luzapena onartzea, 2024ko abenduaren 31ra arte. Erabaki horren bidez, gizarte-zerbitzuak behin-behinean mantentzea onartu zen, Aldundiak eta 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten Arabako Lurralde Historikoko udalerriek kudeatu dituzten baldintzetan.

Aldi horretan, Mapa egiteko eratutako Erakundearteko Mahaiak gizarte-zerbitzu guztiak emateko beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko ditu, bakoitzari dagokion eskumen-esparruan, eta adierazitako aldian arian-arian ezarriko da.

Honako gizarte-zerbitzu hauek sartzen dira:

- 1.3.A fitxa. Esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzuak. Prebentzio komunitarioaren eta bazterkeriaren eremuko programak:

y en el servicio de intervención socioeducativa se ha elaborado el reglamento de acceso pendiente aprobación definitiva. Se aprobó una quinta prórroga mediante Acuerdo del Consejo de 396/2022 de 28 de junio y mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno 883/2022, de 28 de diciembre, se aprobó la sexta prórroga hasta el 31 de diciembre de 2023. No obstante y dado que no ha sido posible finalizar con los trabajos pendientes, se considera oportuno tramitar una séptima prórroga, hasta el 31 de diciembre de 2024 del Acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Políticas Sociales, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO

Primero. Aprobar una séptima prórroga hasta el 31 de diciembre de 2024, del Acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre, que aprobaba el mantenimiento provisional de los servicios sociales en los términos que se han venido gestionando por la Diputación y por los municipios del Territorio Histórico de Álava, con población inferior a 20.000 habitantes.

En este período, la Mesa Interinstitucional constituida para la elaboración del Mapa propondrá los recursos técnicos, económicos y jurídicos necesarios para la efectiva prestación de todos los servicios sociales en el marco competencial que a cada uno corresponda, que se irá implantando progresivamente durante el periodo señalado.

Los servicios sociales que se incluyen son los siguientes:

- Ficha 1.3.A Servicios de intervención socioeducativa y psicosocial. Programas del ámbito de la prevención comunitaria y de la exclusión:



- Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak landa-eremuan sartzeko zerbitzuak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere gain hartzen du, batetik, erabiltzaileak zerbitzu horretara bideratzea, dagokion eskubide subjektiboa aitortuta, eta, bestetik, zerbitzua zeharkako kudeaketa bidez ematea.

- 1.3.B fitxa. Esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzuak. Haurrak babesteko programak:

- Familia-esku-hartzean, arreta psikologiko eta psikopedagogikoko zerbitzuan eta izaera psikosozialeko ikerketa- eta/edo balorazio-txostenak egitean espezializatutako programa, babesgabetasun-arrisku arin edo ertaineko egoeran dauden adingabeentzat.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere gain hartzen du, alde batetik, babesgabetasun arin eta ertaineko egoeran dauden adingabeak aipatutako programa/zerbitzuetara bideratzea, eta, bestetik, zerbitzua zeharkako kudeaketaren bidez ematea.

- 1.5 fitxa. Gizarte-zerbitzuen eremuan parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzea.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prebentzio komunitarioko zerbitzu bat du, hiru teknikarirekin, Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan banatuta. Bere lana prebentzio unibertsalaren, egokituaren eta selektiboaren arloko irizpideak eta esku-hartzeak homogeneizatzea da, udal-eremuko prebentzio unibertsala izanik.

- Servicios para la inserción en la zona rural de colectivos en situación de riesgo de exclusión.

El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo por un lado, la derivación de las personas usuarias al referido servicio, con el correspondiente reconocimiento de derecho subjetivo, y por otro lado, la ejecución de la prestación del servicio mediante gestión indirecta.

- Ficha 1.3.B Servicios de intervención socioeducativa y psicosocial. Programas del ámbito de la protección a la infancia:

- Programa especializado en intervención familiar, servicio de atención psicológica y psicopedagógica y elaboración de informes de investigación y/o valoración de carácter psicosocial, todo ello para menores de edad en situación de riesgo leve o moderado de desprotección.

El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo por un lado, la derivación de menores en situación de desprotección leve y moderada, de competencia municipal, a los referidos programa/servicios y por otro lado, la ejecución de la prestación del servicio mediante gestión indirecta.

- Ficha 1.5. Promoción de la participación e Inclusión Social en el ámbito de los Servicios Sociales.

El Instituto Foral de Bienestar Social dispone de un servicio de prevención comunitaria, con tres personas técnicas repartidas en las diferentes Cuadrillas del THA. Su labor es homogeneizar los criterios e intervenciones en materia de prevención universal, indicada y selectiva, siendo la prevención universal de ámbito municipal.



- 1.9.1.2 fitxa. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ostatu-etxebizitza zerbitzuak:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere gain hartzen du, alde batetik, zerbitzu hori ez duten landa-eremuetan, erabiltzaileak zerbitzu horretara bideratzea, eta, bestetik, emakume biktimei arreta emateko harrera-pisuen eskuragarritasuna.

- 1.9.3 eta 1.9.4 fitxak. Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak:

- Hitzarmenak udalekin etxebizitza komunitarioak kudeatzeko eta mantentzeko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere gain hartzen du erabiltzaileak zerbitzu horretara bideratzea, dagokion eskubide subjektiboa aitortuta. Udalak, berriz, zerbitzua emateaz arduratzen dira, eta, ondorioz, Arabako Foru Aldundiak finantzatzen du.

Bigarrena. Erabaki honen lehenengo atala eraginkorra izan dadin, udal bakoitzari dagokionez, udal organo eskudunak dagokion adostasuna eman beharko du, eta, horren ondorioz, ziurtagiria jakinarazi beharko dio Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Akordio hau lehenengo paragrafoan aipatzen diren udalerriei helaraztea, 2024ko martxoaren 31 baino lehen bigarren paragrafoan xedatutakoa onartzeko, hala badagokio.

Laugarrena. Gizarte Politiketako foru diputatuari ahalmena ematea akordio honetan xedatzen dena garatu eta kudeatzeko.

- Ficha 1.9.1.2 Servicios de alojamiento-pisos de acogida para mujeres víctimas de violencia de género:

El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo en aquellas zonas rurales que no disponen del referido servicio por un lado, la derivación de las personas usuarias al referido servicio y por otro lado, la disponibilidad de pisos de acogida para la atención de las mujeres víctimas.

- Ficha 1.9.3 y 1.9.4 Servicios de alojamiento para Personas Mayores:

- Convenios con ayuntamientos para la gestión y mantenimiento de viviendas comunitarias.

El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo la derivación de las personas usuarias al referido servicio, con el correspondiente reconocimiento de derecho subjetivo, mientras que los Ayuntamientos se encargan de la prestación del mismo con la consiguiente financiación por parte de la Diputación Foral de Álava.

Segundo. La efectividad del apartado primero de este Acuerdo quedará condicionada, respecto de cada Municipio, a la adopción, y consiguiente comunicación de certificado a la Diputación Foral de Álava, de la correspondiente conformidad por el órgano municipal competente.

Tercero. Trasladar el presente Acuerdo a los municipios a que hace referencia el apartado primero a los efectos de la adopción, en su caso, de lo dispuesto en el apartado segundo con anterioridad al 31 de marzo de 2024

Cuarto. Facultar al Diputado Foral de Políticas Sociales, para el desarrollo y la gestión de cuanto se dispone en el presente acuerdo.



Bosgarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. uztailearen 13ko 29/98 Legearen 44.1, 8.1 eta 46.1 artikulua.

Quinto. Contra el presente Acuerdo se podrá interponer Recurso Contencioso – Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a su notificación de conformidad con los arts. 44.1, 8.1 y 46.1 de la ley 29/98, de 13 de julio.

Vitoria-Gasteiz a 26 de diciembre de 2023.

Ramiro González Vicente
Diputatu Nagusia
Diputado General

Gorka Urtaran Agirre
Gizarte Politiken foru diputatua
Diputado Foral de Políticas Sociales

Ana Belén Otero Miguélez
Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
Directora de Servicios Sociales
”.

Bigarrena.- Alkatetzari eskumenak ematea erabakian xedatutakoa garatu eta kudeatzeko.

Hirugarrena.- Erabakia Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, Diputatuen Kontseiluaren aipatutako erabakiaren bigarren puntuan aurreikusitakoa betetzeko.

9.- Alkatetzaren dekretuen berri ematea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2024/141 eta 2023/490 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/141.- R.D.B.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Olabazarreko etxebizitza eraikitzeke udalaren obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/142.- Zorroza Gestión SLk Alkatetzaren 2023/616 Dekretuaren aurka jarritako 47/2024 JKAn bertaratzea.-

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/143.- Dulantziko idazkari kontu-hartzailearen nominaren zerrenda onestea, funtzioak metatzeagatik, 2024ko otsaila.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/144.- AFari dirulaguntza eskatzea euskararen bidez sozializazio-programak garatzeko, 2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/145.-JI.U.M.- Arespalditzako etxebizitza antolamenduz kanpo deklaraztea, hirigintza lehengoratzeko espedientea hastea, eta Jabetzaren Erregistroari horren berri ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/146.-U.M.A.- Lehengoratzeko espedientea hastea, etxebizitza lehen erabilerarako behin betiko lizentziarik gabe erabiltzeagatik, eta Jabetzaren



Erregistroari horren berri ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/147.- A.P.V.- Etxebizitza antolamenduz kanpo deklaratzeko, Lantenon; terrazako estalkia, garaje erantsia eta txabolaren eraikitzea lehengoratzeko espedientea hastea; eta Jabetzaren Erregistroari horren berri ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/148.- Murgako administrazio-batzarra.- Dokumentazioa eskatzea, Murgan autobus-geralekuko markesina konpontzeko udalaren obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/149.- J.C.G.- Udalaren obra-lizentzia ematea Luiaondoko lokala egokitzeko, estetika-zentro gisa erabiltzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/150.- M.A., M.E. eta M.A.H.- Lantenoko eraikina antolamenduz kanpo deklaratzeko, hirigintza lehengoratzeko espedientea hastea, eta Amurrioko Jabetzaren Erregistroari horren berri ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/151.- E.A.G.- Maroñoko partzela ixteko horma eraikitzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/152.- Zuhatzako administrazio-batzarra.- Zuhatzako euri-uren saneamendurako sarearen obra berriko hondakinak behar bezala kudeatzeko bermean aurkeztutako fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/153.- E.C.O.- Erbin eraikina birgaitu eta etxebizitza gisa erabiltzeko eskatutako udalaren obra-lizentzia ezezte.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/154.- A.U.G.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/155.- A.H.O. eta S.SM.L.- Antolamenduz kanpo deklaratzeko, obra-lizentzia iraungituz jotzeko espedientea hastea, eta Jabetzaren Erregistroari jakinaraztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/156.- Harsco Metals Lycrete SA.- Dokumentazio gehigarria eskatutako udalaren obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/157.- Elkarkidetzaren Pentsioak. 2024ko maiatzeko faktura-likidazioa onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/158.- Aiarako Kuadrilla. Ekarpen ekonomikoa HHSen kudeaketa gastuengatik- 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/159.- AIARA- EUSKARAZ KOOP S (AEK) - Berbalagunen hirugarren luzapena onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/160.-Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2024/2.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/161.- Eskatutako hirigintza-txostenaren berri ematea eta Kexaako Ibaguen auzoko 3. zenbakidun etxebizitzaren erabileraren hirigintza lehengoratzeko espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/162.- I.U.U.- Udalaren obra-lizentzia ematea, Zuhatzako txabolaren estalkiko itoginak konpontzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/163.- Kexaako administrazio-batzarra.- Kexaako Andra Maria Zuria eta Santa Luzia basilizan hezetan konpontzeko udalaren obra-lizentziaren eskaerari uko egitea onestea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/164.- Sociedad Aranzadi Zientzia Elkartea.- 2023ko lankidetzaren hitzarmenaren dirulaguntza ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/165.- JL.B.B.- Udalaren obra-lizentzia ematea, Izoriako txabola baten uralitazko estalkia teilarekin ordeztzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/166.- R.D.B.- Olabazarreko familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/167.- 2024ko martxoko nominen ordainketa likidoa onestea, langileak eta alkatea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/168.- EEPko langileen kontratazioko 2024ko martxoko ordainsariak ordaintzea, 2023/24.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/169.- JM.S.S.- 6. poligonoko 620. zenbakidun partzelan (Olabazar) dagoen baserrian segurtasuneko gutxieneko obrak egitea agintzea eta obren betearazpen subsidiarioa egitea, jabeek egiten ez badituzte.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/170.- JI.U.M.- Hirigintza lehengoratzeko hasitako espedientean alegazioak aurkezteko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/171.- JL.B.G.- Izoriako txabolan estalkia ordeztzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/172 – ASE PLUS SL- Udal-erakinak garbitzeko zerbitzuaren kontratuko baldintzak betetzea errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/173.- Udalerriko talde politikoei ekarpen ekonomikoa egitea, 2024ko martxoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/174.- Etxaurren Ikastolako guraso-elkartea.- Baimena ematea Ikastola Etxaurrenen horma-irudia margozteko eta jarduketa egiteko aldamia instalatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/175. – Udalkideei ekarpen ekonomikoa egitea, 2024ko martxoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/176.- Excavaciones Azkarreta SL eta Montajes Garra SL- Arespalditzako haurren jolastokiko obra eta hornidura amaitzeagatik bermeak itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/177 – A.DLB.- Erabilera anitzeko eraikina egokitzeko proiektuaren arkitekturako kontratu txikia adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/178.- A.H.O. eta S.SM.L.- Lizentziaren iraungitzeari buruz hasitako espedientean alegazioak aurkezteko epea luzatzea adostea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/179.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Langileen, alkatearen eta enpresaren kotizazioa ordaintzea, 2024ko otsaila.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/180 – Taldeport Servicios Deportivos.- Luzapena indargabetzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/181 – Udal-igerilekuak kudeatu eta mantentzeko zerbitzuaren espedientea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/182.- JM.C.A E/R C.P. LUIAONDOKO LA TORRE KALEA ETA BIKENDI.- Luiaondoko partzela bateko hobi septikoa ixteko udalaren obra-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/183.-Nortegas Endesa Energía SAU. Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2024ko 1. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/184 Nwd Suminsitro GLP SAU - Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/185.- Gurasoen Elkarte Babio. 2022an emandako dirulaguntza ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/186.- Gurasoen Elkarte Babio. 2023an emandako dirulaguntza ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/187.- Espedientea onestea, kreditu-gerakina sartzeari buruzkoa, 2/2024 zenbakia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/188.- Luiaondoko administrazio-batzarra.- Obraren amaierako lizentzia ematea eta Kultur Etxean oztopo arkitektonikoak kentzeko obraren hondakinak ondo kudeatzeko berme gisa ordaindutako fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/189.- Erretes Lantenoko administrazio-batzarra.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Erretes Lantenoko Magdalena baseliza konpontzeko udalaren obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/190.- F.A.O.- Etxegoien egindako saneamendu-obrei buruz F.A.O.k jarritako berraztertze-errekurtsoaren berri ematea Etxegoienko administrazio-batzarrari eta Urbide-Arabako Ur Partzuergoari.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta aurrekontu-aldaketak onesten dituzten dekretuei buruz galdetu du.

Idazkari andreak dagokion azalpena eman dio.

Jarraian, alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, presazko arrazoiak direla medio, Udalbatzaren Osoko Bilkurari proposamen bat aurkeztu zaiola Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak eskatzeko (Erein Programa), deialdiarekin batera aurkeztutako gai-zerrendan ez dagoena, Toki Erakundeen, Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Premiazkoa da gai hau osoko bilkura honetan eztabaidatu eta bozkatzea, dirulaguntza ezarritako epean eskatu ahal izateko.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko iruzkinetan emandako arrazoiengatik.

Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa ote den erabaki du, eta aho batez erabaki du osoko bilkura honetan eztabaidatzea. Horrenbestez, honako puntu hau sartu da:



10.- Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak (Erein Programa) eskatzeari buruzko osoko bilkurako erabaki-proposamena.

Gaiari buruzko erabaki-proposamenaren berri eman da.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko proposatu nahi duela diruzaintza-geldikinaren kargura obra hori egikaritzeko behar den partida gaitzea eta kontratazioa aurreratzea, hala puntu gehiago lortuko dituztelako dirulaguntzen deialdian.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Agindua, 2024ko martxoaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita 2024ko ekitaldirako laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko (Erein programa). Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2024ko apirilaren 2an.

IKUSI DA.- 2024ko apirilaren 9an (Sarrera-erregistroko zk.: 1619) Ander Ganzedo Zulueta teknikari jaunak Udal honetan aurkeztu zuela “EGIKARITZE-PROIEKTUAREN GEHIGARRIA: “BABESERAKO MARKESINA ETA KIROL-PISTAKO FATXADAK ZATI BATEAN IXTEA” dokumentua. Bertan, aurrekontua eguneratu eta dokumentuan aipatutako atalak eguneratu ziren, eta, baldintzen agirien gehigarria aurkeztez gain, egituren plano berriak ere aurkeztu ziren.

AINZAT HARTU DA.- Udal-arkitektoaren 2024ko apirilaren 15eko txostena.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuz, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- 2023ko urrian Ander Ganzedo Zulueta arkitekto jaunak idatzi zuen eta 2024ko martxoaren 4an ikus-onetsi zen “EGIKARITZE-PROIEKTUAREN GEHIGARRIA: “BABESERAKO MARKESINA ETA KIROL-PISTAKO FATXADAK ZATI BATEAN IXTEA” dokumentua onestea.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen (Erein Programa) deialdian lehiatzea 2024 ekitaldian, honako obra hau egiteko:

- Luiaondon babeserako markesina jartzea eta kirol-pistako fatxadak zati batean ixtea.



Hirugarrena.- Udalak konpromisoa hartzen du adierazitako obrak kontratatu eta egikaritzeko, eta horien finantzaketa osoaren eta dagozkion ordainsarien ardura hartuko du, aurrekontuaren eta lortutako dirulaguntzen kargura.

Laugarrena.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dirulaguntzaren eskaera aurkeztea, behar den dokumentazioarekin batera.

Jarraian, alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, presazko arrazoiak direla medio, Udalbatzaren Osoko Bilkurari proposamen bat aurkeztu zaiola Luiaondoko pista estalian obra egin ahal izateko aurrekontu-aplikazioak hedatzeko behar den kreditu-aldaketa adosteko, deialdiarekin batera aurkeztutako gai-zerrendan ez dagoena, Toki Erakundeen, Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Premiazkoa da gai hau osoko bilkura honetan eztabaidatu eta bozkatzea, aurreko puntuan adierazi bezala, dirulaguntza horren deialdian ezarritako epeak bete ahal izateko.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko iruzkinetan emandako arrazoiengatik.

Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa ote den erabaki du, eta aho batez erabaki du osoko bilkura honetan eztabaidatzea. Horrenbestez, honako puntu hau sartu da:

11.- Kreditu gehigarriaren 3/2024 espedientea osoko bilkurako erabaki bidez onestea, bidezkoa bada.

Gaiaren erabaki-proposamenaren berri eman da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA. - 2023ko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako Diruzaintza-gerakinaren zati bat erabili beharra, 2024rako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2025era arte itxaron ezin duten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA. - Kontu-hartzaitzako organoak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak aldatzen du) jasotakoaren bat etorriz. Txostena Udalbatzari aurkeztuko zaio, kreditu-aldaketa honekin batera ezagut dezan.

AINTZAT HARTU DA. - Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuz, **ERABAKI DU:**



Lehenengoa. - Ondoren zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan kreditu gehigarria onestea:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA/€
342.601.002	LUIAONDOKO PISTA ESTALIAREN ITXITURA	93.920,80 €
342.601.003	LUIAONDOKO PISTA ESTALIAREN ITXITURAREN ORDAINSARIAK	15.463,20 €

ZENBATEKOA GUZTIRA: 109.384 €

Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatuko dute, espedientea berdinduta eta defizitik gabe aurkezteko moduan:

A. Handitu beharreko diru-sarrerren partidak edo erabili beharreko Diruzaintza-gerakina:

<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GERAKINA	109.384 €.
	GUZTIRA	109.384 €.

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrerren guztizkoaren berdina da.

Bigarrena. - Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun baliioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Hirugarrena. - Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat hartzea. Erreklamaziorik egonez gero, beste erabaki bat hartu beharko da, eta onartu edo baztertu egin beharko dira.

12.- Galde-eskeak



- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza adierazteko dagoeneko Feroscaren proiektuari buruzko alegazioak bidali zaizkiola Eusko Jaurlaritzari, Udalak eta 13 administrazio-batzarrek sinatuak.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko udal-idazkiak bidaltzen direnean, zuzentasuna mantendu behar dela, bidalitako jakinarazpenean Arespalditza eta abar udalerriak aipatzen dira, eta batzarrak ez dira udalerriak, herriak baizik.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza osoko bilkuretan errespetua eskatzeko. Aurreko osoko bilkuran, bertaratutako publikoko pertsona batek esan zuen hautatutako ordezkariak “tontakeria” asko esaten ari zirela. Gaineratu du ez dakiela berari buruz bakarrik edo gainerako hautatutako ordezkariari buruz esan zuela, baina errespetua eskatu du.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) udal-igerilekuen kudeaketa-zerbitzuaren agiriari buruz adierazi du, nahiz eta duela asko zekiten zerbitzua lizitaziora atera behar zela, aurkeztutako agiriak dagoeneko onetsita daudela, eta ezin dituztela ekarpenak egin. Bere ustez, izapidetzeko era hori ez da hoberena.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du aurreko legealdian enpresa batengana jo behar izan zutela lorategien sega egitea, eta salaketak jaso zituzten jarduketa hori zela eta. Egungo udal-gobernuak gauza berdina egin du, eta ulertzen dute, gaineratu du, batzuetan udalaren langileekin hartu ezin diren salbuespenezko egoerak daudelako. Baina orain, udal-gobernuak zerbitzu bat azpikontratatu nahi du, zehazki, sare sozialen kudeaketarena, orain arte udal-langileek eta arduradun politikoez egiten zutena.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza kontratatuko dutena Facebook, Instagram eta WhatsApparen kudeaketa dela. Momentuz, gaineratu du, ez da sartuko webgunearen kudeaketa. Eta azaldu du aurrekontuak eskatu dizkietela hiru enpresari.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) eskatu du horri buruzko dokumentazioa bidaltzea.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Olabezarreko baserriaren premiazko obraren egikaritzeari buruz galdetu du.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (Aiara Batuz) hartu du hitza erantzuteko azkenean ez dela teilatu-hegala moztuko, beste konponbide batekin saiaturiko dira.

Prudencia Otegui Echeverría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza aipatzeko udal-arkitektoak adierazi zuela hoberena zela teilatu-hegala ez moztea eta eraikina sareta batekin babestea, eraikinaren babes-maila ez galtzeko.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) kalistenia parkeari buruz galdetu du, ea horrekin zerbait aurreratu duten. Galdetu du ea zergatik ez diren izapide guztiak hasieratik beharrezkoak zirenak egin URArekin, denbora asko galdu baita.



Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du URAREN txostenaren zain zeudela eta orain heldu dela; orain lanean hasi daitezke.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du URAK teknikariek espero ez zuten txostenen bat edo antzeko zerbait eskatu zuela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza elkarreentzako dirulaguntzen oinarrien onspena kudeatzeko moduaren inguruan dagoen haserrea adierazteko, gaia eztabaidatu zen batzordean izandako egoera arraroa izan zen. Lehenengo, gauza batzuk proposatu ziren, gero gobernu-taldeko zenbait pertsonak beste batzuk proposatu zituzten, azkenean talde biek gauza bera proposatu zuten, eta EAJ-PNVren proposamenak ez ziren jasota geratu.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta adierazi du informazio batzordeak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko dela, eta horixe egin zela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) esan du baietz, baina proposamen bati buruz eztabaidatzeko egiten direla, eta bere taldeak aurka bozkatuko zuela, ez zutelako proposamen hori ezagutzen.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza adierazteko aurreko osoko bilkuraren grabaketa entzun duela. Zehazki, Etxegoingo administrazio-batzarraren eskaera bati buruz, alkate jaunak esan zuen erregidorearekin hitz egin zuela, eta esan zion ez zuela nahi Udalak obra egitea, Udalak lagapena egitea baizik.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) adierazi du gai horrekin ari direla, baina berak ez zuela hori esan.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du Gentza Alamillo jaunak azaltzen ari den bezala gertatu zela gogoratzen duela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du grabaketak berrikustea nahi duela. Gaineratu du Etxegoingo batzarreko erregidorearekin hitz egiten egon dela eta ez dio inoiz Udalari proposatu egindako eskaera edo obra egiteko modua aldatzea.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza eta adierazi du erregidorearekin harremanetan jarraitzen duela gai horretarako.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea altuerako sastrakak kentzen amaitu den.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du eskaera guztiei erantzungo zaiela. Lantaldea orain Artziniegan dago, baina datorren astean Aiara itzuliko da eta altuerako sastrakak kentzen jarraituko du.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea nola dagoen administrariaren lanpostuaren EPEren prozesua. Jakin nahi du ea aurreikuspenik dagoen onartuen behin-behineko zerrenda ateratzeko, jendea galdetzen ari delako eta ez dakite ezer.



Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza esateko une horretan ezin diola galdera horri erantzun.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du espedientea nola dagoen begiratuko dutela eta esango dutela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko jakinarazi dietela siloratzeko plastiko asko pilatu dela ustiategietan, eta jakin nahi du eta konponbiderik eman dieten.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta erantzun du lizitazioa atzeratu dela, Artziniegako Udalarekin batera egin baita, eta, ondorioz, plastiko gehiago pilatu da. Nahiz eta enpresa prest zegoen bilketa egiteko, ezetz esan zioten, lizitazioa amaitu gabe zegoelako.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza adierazteko abuztuan edo irailean ehiza-barrutiaren aprobetxamendurako kontratua amaituko dela, eta galdetu du ea dagokiona egiten eta izapidetzen hasi diren. Gaineratu du agiri horiek eztabaida bizia eragin zutela aurreko legealdiko osoko bilkuretan, eta jakin nahi dute zien ildotik jarraituko den.

Idazkari andreak hartu du hitza adierazteko gaia aztertzen hasi direla; agirien zirriborroak egiten ari dira, eta aldundiarekin harremanetan daude. Hurrengo batzordeetarako zerbait aurreratuko dute.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza adierazteko aurreko legealdian erabaki zela aprobetxamenduaren adjudikazioaren zenbatekoa murriztea, arazo bat konpontzeko. Neurri hori asko kritikatu zuten, eta hori dela-eta jakin nahi du orain gobernu-taldeak horren inguruan duen jarrera, badirudielako aurreko legealdian hainbeste kritikatu zuten gauza bera egiten ari direla.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza galdetzeko zertarako den musika-ekitaldi baterako argazkigintza-enpresaren aurrekontua.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du aurrekontua Black Camera enpresarena dela, eta kultura-jardueretan ere aritzen dela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea nork girotuko duen adinekoen bazkaria jaietan.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun dio Isitxu kontratatu dutela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko astelehenean Laudion Belardi proiektua aurkeztu zela, eta galdetu du ea kudeaketarik egin den elkartearekin.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun du ez direla haiekin egon.



Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du harritura dagoela, aurreko legealdian hiltegiaren arazoa asko eztabaidatu baitzen. Eta orain, Laudioko Udalak hitzarmen bat egin du elkarte horrekin abeltzain eta harakinen arazoa konpontzeko, eta guztiz harritura dago, aurreko legealdian Aiarak sutzuki eskatu zielako arazoa konpontzea, eta orain ez da ezer egiten ari horri buruz, eta ez dira abeltzainen interesak defendatzen ari.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du harremanetarako datuak dituela, eta haiekin hitz egiteko geratu direla.

- Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Izaskun García Aresti zinegotzi andreari (Aiara Batuz) galdetzeko ea aurreko osoko bilkuran galdetu zuenaren erantzuna duen.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun dio ez duela erantzunik, informazioa eskatuko duela.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko galdetzen duen bosgarren aldia dela; erantzutea eskertuko luke.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko aurten, ekainean, Luiaondoko Bolatoki Klubak Euskadiko Bola-joko lehiaketa antolatuko du. Hortaz, eskatu du, Kexaako Bolatoki Klubarekin egin zen bezala, laguntza ekonomikoa ematea, lankidetzaz-hitzarmen bidez.
Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza erantzuteko aste honetan eskaera egin dutela, baina duela asko hasi zirela haiekin hitz egiten.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) udal-aurrekontuari buruz galdetu du, ea eperen bat aurreikusi den.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du horretan ari direla, eta prest dutenean aurkeztuko dutela.

- Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreari (Aiara Batuz) adierazteko hainbat abeltzainek jakinarazi diotela duela gutxi Hazirekin izandako bilera batean, zinegotzi andreak esan omen zuena Ermandadearen dirua oso justu zegoela eta Kosteran egongo zela. Hori dela eta, eskatu du Ermandadearen kontuak berrikusi daitezela eta azken lau urteetan Aiararen Udalaren izenean Ermandadearen Batzarrean kide gisa egon denak zenbat dieta kobratu dituen adieraztea.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun du berak ez duela inoiz esan dirua Kosteran dagoela, ezta dietak kobratu direla ere; adierazi zuen bakarria Ermandadea dagoen egoera ekonomikoa da.

- Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko programan ez dagoela jasota sariak noiz emango diren.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du sarituak deituko dituztela nola egingo den azaltzeko.



Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita lauko apirilaren hemezortzian.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.